

txintx rri



Egun handia iritsi da

Lasterkariak, patinatzaileak, ipar martxalariak eta gaztetxoak urteroko hitzordua dute igandean Lasarte-Oria Bai! krolean



Ges

ASEGURUAK



Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



"Maratoiko ilusio berarekin aktibatzen ari dira herritarrak"

NAIARA MUJIKA TTAKUN KULTUR ELKARTEKO EUSKARALDIAKO DINAMIZATZAILEA Hizkuntza ohiturak aldatzeko nazio mailako ariketa soziala egingo dute Euskal Herriko 400 herri baino gehiagok azaroan. Lasarte-Oria prest dago 11 eguneko erronkari ekiteko

Maddi Zaldua

Urtebeteko prestaketa lan gogorraren emaitzak ikusteko hilabeteko epea besterik ez zaio geratzen Lasarte-Oriako Euskaraldiari. 2017ko urrian hasi zen Naiara Mujika (Lasarte-Oria 1987) dinamizatzailea herritarrak "xaxatzen", eta talde sendoa osatuta, prest daude 11 eguneko ekimenerako. Ez dira hutsetik hasi, ordea; lanak aurreratu izan ditu herriak. Euskararen Maratoiaren esperientzia oinarri hartuta arinagoak izan dira eginbeharrak.

Ahobizi eta *belarriprest*-ak Euskaraldiko protagonistak izateaz gain, igandeko krosean ere ikusleen arreta guztia bereganatuko dute. Bat zenbakidun dortsalarekin

omenduko baititu lasterketak. "Harrotasun handiz" jaso dute izendapena: "Lasarte-Oria hiru hamarkadaz hizkuntza ohiturak aldatzeko egindako esfortzu eta lana aitortu da". Ariketa soziala Lasarte-Oria jarri zen martxan, eta herriak hori aitortzea "zoragarria" da.

Euskaraldia erakusten ari diren atxikimendua "bikaina" izaten ari da, Mujikaren hitzetan. Izen emateak oraindik amaitu ez badira ere, zifra "oso onak" bildu dituzte momentura arte. Badira, ordea, nabarmentzen ari diren joera batzuk. Izena eman duten herritarren gehiengo, hiritik bi, emakumea da, eta *belarriprest*-en kopurua ez da esperotako zenbakietara

iritsi. Baina hori ez da berria; Euskararen Maratoiko rolen arteko desoreka bera mantentzen ari da. Euskal Herrian ere errepikatzen ari dira joera berberak. Hausnarketarako bidea zabalik du lantaldeak, eta lasarteoriatarrek aktibatzen jarraituko dute egunotan.

Euskal Herri osoan 60.000 pertsonak bat egin dute dagoeneko Euskaraldiarekin.

Ariketa sozialean parte hartzea

Beroketa lanekin batera, oraindik izenik eman ez duten herritarrak animatzeko hainbat ekintza egiten ari da hamaikakoa. Parte hartzeko gonbidapena luzatu dute. Lantaldeak jakinarazi du maratoian parte hartu zuten *ahobizi* eta *belarriprest* askok ez dutela 11 eguneko ekimenean



Naiara Mujika Lasarte-Oriako Euskaraldiko dinamizatzailea da. TXINTXARRI

Lasarte-Oria Bai!

Krose Herrikoia

1
dortsala
historikoak

- 2008 Eulogio de la Serna
- 2010 Santos Uribe
- 2011 Nieves Civicos
- 2012 Eskobak taldea
- 2013 J. L. Juarez, "Gambers"
- 2014 Lontxo Esnaola
- 2015 DYA
- 2016 Jalgune
- 2017 Txintxarri / DV
- 2018 Euskaraldia

Bideo Lagunak

Tien 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak

Beherapenak TOP 21 Udazkena

Bideo Lagunak Lasarteko KROSSarekin

Finantziazioa neurria

Garraio zerbitzua

Erabilitako gailuen jasotzea

Aholkularitza espezializatua

Preziorik onena

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

oraindik izenik eman; horregatik gogorarazi dute maratoirako izen emateak ez duela Euskaraldikoa bermatzen: "Berriz ere izena eman behar dute Euskaraldirako".

Halere, momenturarteko kopuruek argi utzi dute lehen aldiz herritar ugari bat egin dutela Euskaraldiarekin, eta hori lortu izana ere "oso positiboa" da: "Nazio mailako zabalkundeak lagundu du herritar gehiago aktibatzen".

Hemendik azarora bitarte ere finkatuta dituzte beste hainbat ekintza. Oraindik ezin dute askorik aurreratu, baina orain arteko bidean jarraituko dute. "50 zentrimetotako legeari" eutsiko diote. Herritarrekin zuzeneko harremanetan oinarritzen da: "Oso eraginkorra izan zen maratolian, eta horren aldeko apustua egin dugu berriro ere".

Lan taldea, "altxorra"

Dinamizazioak berebiziko garrantzia badu ere, lantaldearekin batera egindako lana da. "Giro ezinhobea sortu



Lasarte-Oriako hamaikakoteko ideak puntuak soinean dituztela. LASARTE-ORIAKO EUSKARALDIA

dugu, familia txiki bat gara eta hori da ekimenak Lasarte-Orian duen arrakastaren gakoetako bat".

Taldea ez dute hutsetik sortu. Maratoiko zortzikoteari kide berriak elkartu, eta hamaikakote bizia osatu dute. Esperientzia izateak bultzada eman dio taldeari, nazio mailakoari heltzeko; esfortzuak esfortzu, elkarrekin gustura ari dira.

Beste dimentsio bat hartu du aurtengo ekimenak; herritik Euskal Herrira zabaltzeak

herrien arteko kohesioa ekarri du. Aholkularitza lanean aritu da Mujika. Foro amankomunak ere sortu dituzte, esperientziak elkarbanatu eta elkarrekin aritzeko. "Herrian horrelako ariketa proposatu genuenean, martzianoen gisa sentitu ginen. Emaitzek erakutsi dute, ordea, egindako lanaren garrantzia, eta Euskal Herrira zabaltzeak ere hori berretsi du".

Lau asteren faltan sentsazio "oso onak" ditu dinamizatzaileak. "Ikusgarria" izango da 11 egunez

egingo den Euskaraldia: "Lehenengo aldiz Euskal Herriak modu bateratuan hizkuntzaren erabilera suspertzeko bidean elkarrekin arituko gara".

Puntuak korrika

Igande berezia izango da Euskaldiko lantalde kideentzat asteburu honetakoa. Lasterkari onenekin batera hamaikako puntu batzuk ere korrika egitera animatuko dira. Ostadarren omenaldia eskertzeko, Michelinetik

helmugara bitarteko azken kilometroan hamaikoak elkarrekin egingo du.

Izen emateko aukera

Lasterketak iraun bitartean, izena emateko postua jarriko dute Okendon. Igandekoa "hauspoaldi ederra" izango da, azaroko 11 eguneko erronkari hasiera emateko, baina hizkuntzaren normalizazioak bide luzea du aurretik. Hori lortzeko modua argi du Mujikak: "Elkarreraginez jarraituko dugu".



Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Fernández
ehunak



Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

Krosa barrutik bizitzeko beste modu bat gehiago

Froga moduan aterako dira lehen aldiz ipar martxalariak igandeko krosean. Bost kilometroko ibilbidea egingo dute. Ostadarreko Ipar Martxa sailak "ilusio handiz" hartu du erronka. Ondo ateratzen bada, hurrengo urtean izen emateak irekiko dituzte

Adrian Garcia

Urteko egun berezietakoa da krosarena Lasarte-Orian. Modu batean edo bestean, herritar mordo murgiltzen da korrika festan; lasterkariak, patinatzaileak, laguntzaileak, ikusleak, gurasoak, haurrak... Dagoeneko badaude modu asko Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia bizitzeko, baina aurten are gehiago zabalduko da lasterketa: ipar martxalariak parte hartuko dute lehenengo aldiz.

"Nola ez zarete ba aterako, Ostadarrekoak zarete eta". Erantzun hori jaso zuten Rosa Ormazabalek eta Junkal Perezek lasterketako arduradunei



Ostadarreko Ipar Martxa saila, aurtengo ekitaldi batean, Okendon. TXINTXARRI

proposamena egitean. Froga moduan egingo dute aurten bost kilometroko ibilbidea. Lehenengo zatia, irteeratik Kale Nagusira iritsi arte, korrikalarien atzetik joango dira. Gero ibai ondotik buelta eman, eta Michelingo zuzenkian elkartuko dira berriro lasterketarekin. "Orduan izango da zati gatazatsuen, Okendo plazaraino lasterkariekin joango gara eta. Ziurrenik hesi batzuk jarriko dituzte", azaldu du Ormazabalek.

Ilusioa

"Ilusio handia" egiten diete Ostadarreko Ipar Martxakoei krosean parte hartzea. "Bestela guk ez genuke aukera izango hor ateratzeko. Gure seme-alabak eta ilobak ateratzen dira urtero, eta aurten gu bertan parte hartzen ikusiko gaituzte", azaldu du Perezek. Gainera, krosak herrian duen garrantzia ikusita, barrutik bizi ahal izatea "egia bihurtutako ametsa" da, Ormazabalen hitzetan. "Ostadar oso garrantzitsua da gure bizitzan. Gure seme-alabak taldearen bueltan egon dira beti. Eta krosa da Ostadarren ekintza gorena".

Lehenengo froga denez aurtengoa, taldekide guztiak ez dira aterako. Baina izango dute zereginak: lasterketan boluntario gisa lagunduko dute. "Eta ondo bukatzeko, bazkaria egingo dugu amaitzean".

Erreferentziak hartzeko

30 bat ipar martxalari aterako dira denera. Donostiatik ere etorriko da baten bat. "Nahi dute kanpotik jende ona etortzea, jakiteko zenbat denboran egin daitekeen ibilbidea. Guk 45 minutu inguruan egingo dugu. Ordu erdian sartuko da lehenengoa". San Silvestre lasterketan luzera antzeko ibilbidea egiten dute. "Badakigu zer den lasterketa batean ateratzea".

Edonola ere, gehienez ordu bete eta hamar minutuko denbora izango dute lasterketa amaitzeko. "Bost kilometro bakarrik dira, martxalari guztiak sartuko dira denbora horretan".

Ondo ateraz gero, hurrengo urtean proba lehiakorra izango da ipar martxarena. Alegia, txipa, kronometroa eta irabazleentzat dominak izango dira.

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

693 059 392 / 943 566 640 • uraitz@uraitz.com • www.uraitz.com
BULEGOA: Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

KIROLARIA ZARA?

NUTRIZIO DENDA

- ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO DIETA ETA ENTRENAMENDUA
- DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN AHOLKULARITZA
- ESPERIENTZIA ZABALA

Kale Nagusia 46, 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 57 93 16

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2
20160 **LASARTE-ORIA**
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus

"Ibilbidea erakargarria da, eta giroa aparta"

ILAZKI ZALAKAIN PATINATZAILEA

Talde indartsua du Iristakak; iaz hiru patinatzaile sailkatu ziren lehen bosten artean. Zalakain txapelduna izan arren, azken unera arte ez du jakingo parte hartuko duen

Adrian Garcia

"Ibilbidea teknikoa da, eta lehen zatia da erabakigarria". Ilazki Zalakainek (1982, Tolosa) Lasarte-Oria Bai! kroseto patinatzaileen lasterketaren bi ezaugarri eman ditu. Lehen edizioa egin zuten iaz, baina "etorkizun oparoa" aurreikusi dio probari. Badaki zeri buruz hitz egiten duen. Hain justu, patinatzaile zaildua da tolosarra; nagusitasunez irabazi zuen iazko edizioa.

Iazko txapelduna izango al da aurtengo irteeran?

Saiatuko naiz, baina zaila izango dut. Oraintxe eduki berri dut ume bat, eta denbora ateratzeko zailtasun handiek nabil.

Iaz egin zen lehen aldiz patinatzaileen lasterketa. Nolako da ibilbidea patinetan lehiatzeko?

Nahiko teknikoa da. Hasieran aldapa batzuk badaude. Urbil ingurutik joaten da lehen zatian, eta berriro herrira bueltatzean bihurtune txar pare bat daude. Zubietta aldean ere badago zatiren bat oso ondo asfaltatu gabe, baina oro har, ibilbidea ederki dago. Erakargarria da, eta gainera giro aparta egoten da.

Patinetan asko baldintzatuko du eguraldiak, ezta? Korrika baino gehiago behintzat.

Bai. 90 graduko bihurtune bat, aldapa behera bustita baldin badago, oso kontuz ibili behar

da. Iaz ihes eginda nindoan, abiada bizian... arriskutsua izan daiteke.

Ibilbidea ezagututa, zer estrategia hartzea gomendatuko zenioke patinatzaile bati?

Hasieran aldapak daude, eta, ondorioz, azkar egiten da onenen hautaketa. Hobe da zati teknikoetara onenen taldean iristea, arriskuak ez hartzeko azken orduan.

Korrika ez bezala, haize babesak eragin handia du, txirindularitzaren antzera.

Hori da. Aldapa gora ez du horrenbesteko eraginik, eta hor egin daiteke hautaketa. Gero Zubietta aldera ailegatzen bazara taldetxoan, hor bai,



Ilazki Zalakain, besoak altxata helmugaratzean. TXINTXARRI

garrantzi handiagoa du haizetik babestuta joateak, eta zailagoa da baten bat atzean uztea.

Talde lanak garrantzi handia du orduan. Horri esker irabazi zenuen zuk iaz, ezta?

Bai, taldekide gehiago ginen, eta oso argi genuen estrategia; eraso bat bestearen atzetik jo genuen, gure patinatzaile batek ihesaldia hartzea nahi baigenuen. Nire taldekide batzuk ihes egin zuten,

harrapatu zituzten, eta azkenean nik lortu nuen urrutzea; helmugaraino iraun nuen.

Iristaka taldetik etorriko al dira lasterketa irabazteko hautagaiak?

Bai. Hiru maila antzekoan gaude. Josu Aldazek eta Iñaki Zubillagak parte hartuko dute; edozeinek irabaz dezake. Ni saiatuko naiz hor egoten, eta ahal badut haiei laguntzen, garaipena lortu dezaten.



Zorte on korrikalariei!

Gure produktuekin 12 sorta zozketatuko ditugu korrikalari guztien artean!

Patxi Larrañaga
Ana Iparraguirre
Naroa



Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria
Tel. 943 37 26 68 - Faxa: 943 37 07 37

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurria
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

I. Urruzola
aroztegia



Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

iurruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

Lasarte-Orian Guk Kirola euskaraz

Antolatzailea: Ostadar Saiala Kirol Taldea

OSTADAR SAIALA S.R.T.
www.ostadarskt

LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT UN BUEN TRATO

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Laguntzaileak: DYA, Danok Kide, AEK, Jalgune, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri ikastetxea

LARRE JATETXEA

- Asteburuko menua 18 €
- Berrit! Menu begetarianoa 19,90 €
- Babarrun-jana + txahal saiheskiak 18 €

Larrekoetxe bidea, 10 LASARTE-ORIA
943.361012 - 679.930895

ALBA
ARROPA DENDA

Lasarte-Oria Bai!
Animoak gustie!

SOAKED DEVOTA & LOMBA ese 0 ese NAFNAF YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Tiburtzio

Artizar

Pintxoak • Razioak • Ogitartekoak...

Lasarte-Oria Bai!
Kale Nagusia 12. behea atzealdea (Okendo plaza) • LASARTE-ORIA

Tren Geltokia
Kilometroak
Informazioa
Izen ematea
Aparkalekua
Konsigna
Dutxak

km. 5
km. 6

Krosa + Roller ibilbidea
Ipar martxa ibilbidea

BIKAIN

Adin nagusikoa bihurtuko da aurten txikien Korrika Festa

2001. urteko urriaren 28an egin zuten lehen Korrika Festa; 2018ko data berean, XVIII. edizioa izango da. Oraindik badago aukera dortsalak hartzeko. Gaur arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean izena eman ahalko dute haur eta gazteek; bihar eta igandean, kirolgunean

Txintxarri

Urriaren 28an Korrika Festaren edizio berezia izango da. Izan ere, hemezortzigarren aldiz egingo dute gaztetxoek lasterketa. 2001. urteko urriaren 28an 400 bat gaztetxok parte hartu zuten txikien krosean; urteen poderioz, Korrika Festa handia bilakatu da ekimena. Ikusleen txalo-zaparradarik handienak jaso zituzten orduan gaztetxoek; gaur egun ere, senide, lagun eta herritarren babesa eta indarrak jasotzen dituzte Geltoki kaleko metroak lasterka egiten dituzten 5 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek. Ordu betez horien ausardia eta trebezia dira protagonista Lasarte-Oriako erdiguneko kaleetan.

Aurreko urtean bezala, infantil eta kadeteak izango dira igandean korrika egiten lehenak. 12:15ak aldera izango da hori. Gainontzekoen ordutegiak ondoan dagoen mapan ikus daitezke.

Helmugara iristean guztiek izango dute saria. Jalguneko kideek domina lepoan jarri eta indarrak berreskuratzeko edateko jogurta eta gailetak izango dituzte.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, haurrek lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago egon beharko dute dagokien harrera gunetan. Izena eman ez duten gazte eta haurrei azken ordura arte ez itxarroteko gomendioa egin diete antolatzaileek.

TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
A	2005/06	12h15'	1.200m
B	2003/04	12h25'	1.200m
C	2013	12h35'	100m
D	2011/12	12h45'	150m
E	2009/10	12h55'	400m
F	2007/08	13h05'	800m

BIKAIN

Horretarako, gaur inskripzio gunea irekia egongo da, Manuel Lekuona kultur etxean, 17:00etatik 20:00etara; bihar, Michelin kirolguneko

pilotalekuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Azken aukera, igandean bertan izango da, 9:00etatik 10:00etara kirolgunean.

Zorte on korrikalari guztiei!

M. BERASATEGI
DESDE 1961 ETIK
KAFE & TEA

Lasarte-Oria Bai!

www.cafesberasategi.com

Hotza izango dute aurkari deserosoena

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian izena emateko aukera dago igandera arte. Herriko ohiko korrikalariak izena eman dute dagoeneko. Faboritoek azken unera arte itxaron ohi dute dortsala eskuratzeko. Udalak 2.000 euroko laguntza eman dio Ostadarri

Txintxarri

Entrenamendu guztiak amaituta, iganderako atsedena hartzea besterik ez zaie geratzen korrikalari eta patinatzaileei. Askok azken unera arte utzi dute izen ematea, ziurrenik eguraldi iragarpenei begira. Orain artekoak ez dira oso baikorrak: hotza egingo du, hamar gradutik behera. Euria egiteko arrisku txikia ere badago. Edonola ere, asteazken gauerako 500 bat pertsonak eman zuten izena dagoeneko, gehienak herrikoak bertakoak. Halere, azken unera arte badago aukera dortsala eskuratzeko: gaur Manuel Lekuona kultur etxean



Lasarte-Oriako lasterkariak, iaz, irteeran. TXINTXARRI

17:00etatik 20:00etara; bihar, lasterketa bezperan, Michelingo frontoian 11:00-14:00 eta 17:00-19:30 bitartean; eta lasterketa egunean bertan, 09:00etatik 10:00etara.

Antolatzaileek ohartarazi dute faboritoak azken unera arte itxaron ohi dutela izena emateko. Horrexegatik, edizio hau ixteko orduan dortsala eskuratu gabe zeuden aurreko urteetako irabazleak. Iaz hirugarren egin zuen Aitor Etxeberrria igeldoarrak soilik ziurtatu du parte hartzea.

Haatik, Lasarte-Oriako ohiko korrikalariak ez dute hutsik egingo. Fede Otaegi 23. aldiz izango da irteera lerroan. Krosa aldi guztietan egin duen pertsona bakarra da.

Lehen postuetan sailkatu ohi diren herritarrek ere mimosoz prestatu dute lasterketa. Raul Gomez Margallok eta Jon Presak erantzun berbera eman diote TXINTXARRI-ri: "Nola ba ez dut parte hartuko herriko lasterketan?". Anabel Elenok eta Maite Salazarrek ere ez dute galduko krosa. Eleno bigarren izan zen iaz, lehenengo herritar gisa sailkatzeaz gainera. Halere,

ohartarazi du aurten errepide gutxi zapaldu duela, mendi lasterketetan murgilduta baitago. "Gutxi entrenatu dut errepidean, mendian gehiago ibili naiz".

Lasarte-Oria Trail, lehenengoz

Orain urtebete baino gutxiago sortu zuten Lasarte-Oria Trail mendi lasterketa taldea, eta lehenengo krosa izango dute aurtengoa. Horrexegatik, iragarri dute "zerbait berezia" egingo dutela. Taldekideak batera aterako dira, "erritmo benetan mantsoan", lasterketaz eta giroaz ahalik eta gehien gozatzeko. Dei egin diete nahi dute herritarrei haiekin batera ateratzera. "Korri egitera ohituta ez dagoen jendea animatzeko modu bat da", adierazi du taldeak.

Lasarte-Oriako Udalak ere herritarrek animatzeko deia egin du. Aurtun 2.000 euroko laguntza eman dio Ostadarri. 3.000 erosketa poltsa oparituko dizkiete lasterkariei, *Lasarte-Oria Bizi eta Erosi* leloarekin. Hain zuzen, herriko merkataritza suspertzeko helburu horrekin jaio zen lasterketa orain 23 urte.

Santxo
Bar Restaurante

Krosa ondoren zatoz indarberritzera!

- pintxoak • errazioak • ogitartekoak
- plater konbinatuak • morunoak

Oriamendi plaza 1 • Tel.: 943 37 20 75

MZUBI
LASARTE-ORIA

Gaetoki Kalea 21 • Tel.: 943 36 24 67

muebleszubi@hotmail.com

Lasarte-Oria Bai!
Krosarekin bat.

LABE-GOXO
Okindegia - Gozotegia

Lasarte-Oria Bai!
Krosarekin bat.

Krosean ere, zatoz gurekin gosaltzera!

- Ogi ezberdinak
- Bonboiak
- Opilak
- Kafetegia
- Pastak
- ...

Hipodromo etorbidea 3, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 61 76 - labegoxo@euskalnet.net

Haur garaiko ilusioa berritzen

Txikien lasterketa 18. aldiz egingo dute aurten. Maite Salazarrek eta Andoni Mujikak lehen lasterketa hartan parte hartu zuten; igandean ere jarriko dute dortsala

Adrian Garcia

Duela urte batzuk jo zuen herri lasterketen sukarrak Euskal Herrian; ordutik asko ugariatu dira proba horiek inguruan. Baina lasarteoriarrek fidel etsi diote herriko krosari, txikitatik landutako lotura baita haiena. Izan ere, helduek hamar kilometroko ibilbidea amaitu ondoren ehunka haurrek hartzen dituzte kaleak, ia denak Lasarte-Oriakoak, handien antzera ere herriko lasterketaz gozatzeko. Aurten 18. aldia du txikien probak.

Maite Salazarrek (Lasarte-Oria, 1988) eta Andoni Mujikak (Lasarte-Oria, 1991) lehenengo lasterketa hartan parte hartu zuten, 2001. urtean. Korrika Festa bakarria egin du Salazarrek, eta ongi gogoratzen du urte hartakoa. "13 bat urte izango nituen nik. Atletismoan ibiltzen ginen, eta igandean krosera korri egitera. Urduritasun puntu bat baguen".

Urduritasuna

Mujikak egin ditu Kros Txiki gehiago, eta lehenengo hartaz ez du oroitzen zehatzik. "Berezia zen krosa klasekideentzat. Izaten genituen gure lehia txikiak".

Lehenengo kros txiki hura arrakastatsua izan zen. 350 haur inguru aritu ziren herrigunean korrika. "13-14 urtekoetan ez ginen asko atera. Orain gehiago ikusten dira", dio Salazarrek. Urtetik urtera indartu egin da ekitaldia. Iazko edizioan 500 bat haur atera ziren.

Edonola ere, ez da Lasarte-Oriako gaztetxoek parte hartzen duten lasterketa bakarria. Urtero Eneko Castroren omenezko krosa egiten dute, Landaberrik antolatuta. "Martxoan egiten zen. Ostadarreko krosa berria zen orduan, ez zen horren ezaguna. Landaberrikoan ume gehiago geundela esango nuke.

Gero bai, zabaldu da gehiago urrikoa".

Dena den, Korrika Festak lortu du lotura bat sortzea haurren eta lasterketaren artean. Izan ere, igande honetan dortsala jantzita aterako dira Salazar eta Mujika krosera. Lehenak dozena erdi bat egin ditu; besteak hamar bat. "Umetan ilusioa egiten du, baina baita heldua zarenean ere. Haurrentzat oso egokia da. Lehiakortasuna kenduta kirola egitea bultzatzeko modu bat da".

Egutegian markatuta

Biek ala biek dute egutegian gorritz markatuta egun hori. "Urtean gehien gustatzen zaidan eguna da. Giro izugarria dago", dio Mujikak. Beste lasterketetan parte hartu ohi du Salazarrek, baina ezin alderatu daiteke giroa: "Goizean goizetik jendea kalean animatzen dago. Gero poteoa egiten da, eta jendea bazkaltzera joaten da. Arratsaldean ere jendea kalean dago...".

Halere, herri lasterketa bizitzeko modu desberdinak dituzte biek. Salazarrek Behobia-Donostia du begiz jota, eta lasterketa hori prestatzeko erabiliko du. "Donostian entrenatzen dut talde batean. Iazko marka hobetzen saiatuko naiz". Orudan helmugaratzen bigarren herritarra izan zen, Anabel Elenoren atzetik.

Ordulariari asko ez dio begiratzen Mujikak. "San Silvestre bat edo beste, baina ez dut beste lasterketarik egiten. Futbolearen ostadarren ibiltzen nintzen". Urtean entrenatutakoaren arabera, desberdin heltzen dio erronkari. "Hobeto baldin banago, gehiago saiatzen naiz estutzen. Baina beste urte batzuetan buelta suabe egiten dut. Aurten ere halaxe tokatzen zait; ez dut gehiegi entrenatu".



Lehen Korrika Festako irteera, 2001. urtean. TXINTXARRI



HALLOWEEN

URRIAK 31

Caddie Plaza
(Atsobakar)

ANTOLATZAILEA

Stratford ingelera akademia

LAGUNTZAILEAK

Buenetxea taberna-kafetegia
Ola enmarkazioak

18:00etatik AURRERA

- "Photocall"-a
- Musika
- "Trick or treat" (trukua ala tratua)
- Mozorro desfilea

... ETA GAUZA GEHIAGO!!






Lasarte-Oria Bai! krosa, herritarren begietatik

- 1.- Zer gustatzen zaizu gehien Lasarte-Oria Bai! krosetik?
- 2.- Zenbagarren aldia duzu aurtengoa?
- 3.- Helbururik jartzen al diozu zure buruari?
- 4.- Urte osoan korrika egin edo patinatzen duzu? Edo kroserako bakarrik prestatzen zara?



Cecilia Juarez

- 1.- Giroa. Sekulako jendetza biltzen da. Lagunak eta familiak elkartu eta kirola egiten dute; gozatzeko egun polita izaten da. Gero bazkaria egiten dugu, egun guztia aprobetxatzen dugu.
- 2.- Laugarren urtea dut aurtengoa.
- 3.-Aurtengoa maratoia egingo dut, eta proba hori prestatzen lagunduko dit krosak. Maratoian 42 kilometro egin behar direnez, krosa hasi aurretik hamar kilometro egingo ditut. Ez dut aurreko urteetako esfortzu gogorrik egingo, baina ez nuen parte hartu gabe geratu nahi.
- 4.-Inolako helburu zehatzik gabe aritzen banaiz ere, lasterketa askotan parte hartzen dut urtean zehar.



Fede Otaegi

- 1.- Giroa. Korrikalariak bi aldiz pasatzen gara herri kaxkotik, eta bertan egoten den jendeak zenbat animatzen duen izugarria da. Iaz Zubietarantz gindoazenean, zubi parean jende pila bat bildu zen.
- 2.- Lehenengo ediziotik urtero egin dut korri: 23. urtea izango dut aurtengoa.
- 3.-Lehen bai. Lagunekin ateratzen nintzen, eta apustuak egiten ez bagenituen ere, denborak hartzen genituen kontuan. Orain, berriz, ondo pasatzeko helburuarekin eginen dut korri.
- 4.-Lehen parte hartzen nuen beste lasterketetan, baina orain bi lehiaketetan aritzen naiz urtero; Lasarte-Oria Bai! Krosean eta Behobia-Donostian.



Mikel Olaiz

- 1.- Herriko giroa da gehien gustatzen zaidana, ikustea nola erakartzen dituen Lasarte-Oriako sektore eta adin askotariko jendea. Horren inguruan sortzen da giro berezia.
- 2.- Begiratzen egon naiz, eta hamargarren aldia izango dut aurtengoa.
- 3.-Helburua ondo pasatzea da. Korrikalaria naiz, kirol horretan aritzen naiz modu iraunkor batean. Herrian askotan erlojurik gabe ateratzen naiz, hain zuzen ere gozatzeko.
- 4.-Korrika egiten dudanean nire helburua ez da lehiatzea. Askotan lasterketak aitzakia bat besterik ez dira, urteroko helburu horri eusteko, eta korrika alde batera ez uzteko.



Sara Arruti

- 1.- Krosak herrian sortzen duen giroa, baina batik batik, lasterketan maite zaituztenen beroa sentitzea korrika egiten duzun bitartean. Egun oso polita dela iruditzen zait Lasarten bizi garenontzat.
- 2.- Kros Txikian urtero ateratzen nintzen, eta aurtengoa helduen lasterketan hirugarrena izango da.
- 3.-Kirola eginez ongi pasatzea eta lagunekin disfrutatzea da nire buruari jartzen diodan helburu bakarra.
- 4.-Korrika egiten dut, baina ez modu erregularrean. Txikitatik gustatu izan zait kirola egitea. Ikasketek denbora asko kentzen didatenez, korrika egiten hasi nintzen.



Naroa Salsamendi

- 1.- Sortzen den giroa da gehien gustatzen zaidana. Jendeak ezagutu egiten zaitu, eta asko animatzen zaituzte. Animo horiek asko eskertzen dira, batez ere neke puntua sentitzen hastean.
- 2.- Sei urtetan parte hartu dut. Iaz atera nintzen lehen aldiz patinetan, baina aurretik korrika egin izan dut. Lasterketa patinetan egitea nahiago dut, gurpilek apur bat laguntzen dute.
- 3.-Momentu honetan gozatzera ateratzen naiz. Parte hartu dudana urteetan ez diot inoiz helburu zehatzik jarri, gozatzeko izan da garrantzitsuena beti.
- 4.-Aurtengoa ez dut beste lasterketetan parte hartzeko aukerarik izan, baina parte hartu izan dut, batez ere, Behobia-Donostia eta 15km-ko klasikan.




Iñigo Ibarburu

- 1.- Herrikoa da lasterketa, eta horrek sortzen duen giroa da hobereana. Goizean hasi eta arratsaldera arte dago herria bizirik. Korrika egiten duzunean ere, jendearen animoak eraman egiten zaituzte. Zure izenez animatzen zaituzte.
- 2.- Kros Txikian urtero ateratzen nintzen; eta gero beste bost bat urtez dortsalarekin. Eta bitan edo, dortsalik gabe.
- 3.-Aurreko urteko denbora hobetzea izaten dut normalean helburua. Aurtengoa ez nago sasoiz oso txukun, eta zaila izango dut. Hurrengo urteko Azkoitia-Azpeitia lasterketan dut helburua jarrita.
- 4.-Lehenengo urtean hasi nintzen triatloietan, eta horretarako prestatzen naiz.



Etxebizitza Berriak
IRU BIDE HOMES
Zure bizitza berrira begira



Terraza
zabalak



Sukalde
hornituak



Ikuspegi
ezinhobeak



Horma-
armairuak



Lorategia eta/ edo terraza beheko
solairuetan



Talde argazki erraldoia atera zuten larunbat arratsaldeko ekintzetan parte hartu zuten herritarrek. TXINTXARRI

Okendo betez bukatu ditu ospakizunak Erketz EDTk

Amaiera berezia urte are bereziagoarentzat. Desfilea, dantza emanaldia, bazkaria eta erromeria izan dira Erketz EDTk 50. urteurrena ospatzeko egin dituen azken ekintzak. Mende erdi honetan dantza taldeko kide izan diren 200 bat pertsonak parte hartu dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ez dute berehalakoan ahaztuko 2018a Erketz EDTko kideek. Urrezko ezteiak ospatu dituzte hilabeteotan; asteburuan egin zituzten azkeneko ekintzak. Larunbatean, desfilea eta dantza emanaldia; igandean, bazkaria eta erromeria, Michelingo frontoian. Dantza taldearen 50 urteko historian kide izan diren

hainbat herritarrek parte hartu dute azken ospakizun egunetan: 200 inguru izan dira guztira. Denek jarri dute hondar aletxoa honaino iristeko.

Ez zen jende askoz gehiago kabitzen Garaikoetxea-Landaberri ikastetxean, larunbat arratsaldean. Musikariak instrumentuak jotzen hasi eta berehala ekin zioten desfileari,

herriko kaleak kolorez eta musikaz beteaz: Atsobakar auzoa, Kale Nagusia, Ola Kalea, Hipodromo Etorbidea, Pablo Mutiozabal eta Geltoki kaleak, eta Okendo plaza.

Bertan emanaldia egin zuten dantza taldeko belaunaldiek. Agurraren ostean, harrobiko dantzariak hartu zuten lekukoa: Baztango esku-dantza, Mahai



Besteak beste, Kale Nagusian ibili ziren desfilearen. TXINTXARRI



Agurra dantzatzu ekin zioten larunbateko dantza emanaldiari. TXINTXARRI

gaineak eta Txulalai dantzatu zituzten Erketz Txikiko neska-mutilek. Ondoren, helduen txanda berriro: Gipuzkoako alpagata eta brokel-dantza, Behe Nafarroako ingurutxoa, Jaurrieta, Eltziego, Ttun-ttun, Leitzako ingurutxoa, Lapurdi eta Gasteiz. Arin-arina, fandangoa eta kalejira ere dantzatu zituzten, bukatzeko. Okendon zeuden hainbat ikus-entzule ere animatu ziren plaza erdira irtetera.

Afaltzera joan aurretik, talde argazki erraldoia. Erketz EDTren irudi-bilduma erraldoirako beste ale bat. Ez da azkena izango.

Aurreko egunean xahututako energia igandean berreskuratu zuten Erketz EDTko kideek. Michelingo pilotalekuan bazkaldu zuten, giro ederrean. Ondoren, digestioa behar bezala egiteko, dantza eta dantza egin zuten musikari taldeak antolatutako erromerian.

HARROBIKO DANTZARIEK ERE IZAN DUTE LEKUA URTEURRENEKO AZKEN EKITALDIAN

Mende laurdena gogoratzeko

Martin Berasategui jatetxea duela 25 urte ireki zuten. Hiru Michelin izar lortu ditu negozio horrek azken mende laurdenean. Guztira zortzi ditu Berasategik, beste jatetxeak ere kontuan hartuta. Haren ibilbidea eta herriari egindako ekarpena aitortze aldera, Julian Toquero artistak eskultura egin dio, udalaren enkarguz. Larunbatean inauguratu zuten.



TXINTXARRI

'Mikrofonoa hartu, matxismoari aurre egin' rap tailerra

Gazteei zuzendutako rap feminista tailerra antolatu du Lasarte-Oriako Udaleko Berdintasun sailak.

La Basu rap kantariak eskainiko du, eta helburua rap musikaren perspektiba feminista batetik matxismoari aurre egiten ikastea da.

Tailerak lau asteko iraupena izango du. Saioak urriak 30ean,

azaroak 6an, 13an eta 20an eskainiko dira, 18:00etatik 20:00etara, Lasarte-Oriako Gaztelekuan.

Tailerrean parte hartzeko emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi behar dute interesa dutenek, edo Gaztelekuko bulegoan izena eman dezakete.

Ekimena azaroaren 25ean Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren ekitaldien harira antolatu du Lasarte-Oriako Udalak.

Arima galduez beteko da Atsobakar auzoa

Urriaren 31n Halloween gaia antolatuko dute Caddie plazan. Haurrei zuzendutako hainbat ekintza egingo dira auzoan, hala nola, 'Trick or treat'. Mozorro desfilea ere izango da, eta iazko ospakizunaren antzera, gozokiak ere banatuko dituzte

Txintxarri

Azaroaren leian Domu Santu eguna da, hildako senideak gogora ekartzeko eguna. Baina bezperan ere, bada zer ospatu: arimen gaia edo Halloween. Lasarte-Oriako Atsobakar auzoan iaz lehenengoz antolatu zuten festa. Ekimenak izan zuen arrakasta ikusirik, aurrean ere arima galdu, munstruo eta sorginez beteko da urriaren 31n, asteazkenean.

Atsobakar auzoko Stratford Ingles Akademiak, Ola enmarkazioak eta Buenetxea kafetegiak lagunduta, Halloween festaren bigarren edizioa antolatu dute; Aterpea herriko merkatarien elkarteak ekintza babesten du.

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, haurren gozameneko photocall, musika eta jokuak izango dira Caddie plazan. Honez gain, *Trick or treat* egingo dute auzoan zehar. Hainbat ezusteko ere izango dira, antolatzaileek azaldu dutenez: "Iazko ospakizunaren antzekoa



Arima galdu ugari bildu zen iaz Caddie plazan Halloween festan. TXINTXARRI

izango da, baina ekintzek hobekuntzak izango dituzte". Photocall-ean, esaterako, mozorroak janzteko aukera izango dute parte hartzaileek. Gozokiak banatuko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Gazteekin batera, nerabeak festara erakartzea izango da erronka nagusietako bat. Aterpea merkatarien elkarteak dei egin die Lasarte-Oriako herritarrei Halloween eguneko festan parte hartzera.

Jesus Zaballo izango da PSE-EEko alkategaia herrian

Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi Eneko Anduezak lagunduta aurkeztu du 2019ko bozetarako hautagaitza

Txintxarri

2011. urteko "ilusio eta gogo berberarekin" aurkeztuko da Jesus Zaballo datorren maiatzeko hauteskundeetara. Horrela jakinarazi du asteazkenean alkate izateko hautagaitza aurkezteko egindako agerraldian.

Askatasunaren parkean alderdikideek babestuta eman du albistea Zaballosek. Lasarteoriatarrek alderdi sozialistan sinisteko arrazioak dituztela uste du alkateak: "PSE-EEren eskutik etorri da



Jesus Zaballo. TXINTXARRI

aurrerapena Lasarte-Oriara, eta horretan jarraitu nahi dugu". Otsailean aurkeztuko dute alderdikideen zerrenda.

Gaztelekuan ate irekiak egingo dituzte larunbatean

Gurasoek eta haurrek Gaztelekua bera eta eskaintzen dituen ekintzak ezagutzeko, ate irekiak jardunaldiak antolatu dituzte biharko, larunbaterako. Guraso eta tutoreek 17:00etan dute hitzordua. Gaztetxoak ordubate geroago joan daitezke. Haiantzako hainbat ekintza antolatu dituzte: mahai tenis

txapelketa eta txapa ikastaroa. Amaitzeko merendola bat egingo dute.

Bestalde, Txus Alonso Kirola, Festa eta Gazteria zinegotziak 5+1 ekimena aurkeztu du, gaztetxoei haien gustuko ikastaroak eskaintzeko. Pertsona batek ikastaro batean parte hartzeko prest dauden beste bost lagun erakartzen baditu, "baliabideen arabera" ikastaroa antolatu, eta hobariak izango lituzke proposatzaile horrek.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

- OHOREZKO ERREGIONALA**
Ostadar SKT - Añorga KKE
Larunbata. 16:00. Harane, Usurbilen.
- ERREGIONAL PREFERENTEA**
Ostadar SKT - Dunboa Eguzki CD
Larunbata. 17:30. Michelin.
- ERREGIONALEN 1. MAILA**
Kostkas KE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.
- JUBENILEN OHOREZKO MAILA**
liintxa SD - Ostadar SKT
Larunbata. 16:30. Bikuña, Legazpian.
- JUBENILEN 1. MAILA**
Ostadar SKT - Usurbil FT
Larunbata. 15:45. Michelin.
- KADETEEN OHOREZKO MAILA**
Ostadar SKT - Martutene KE
Larunbata. 14:15. Michelin.
- KADETEEN 1. MAILA**
Ostadar SKT A - Usurbil FT
Larunbata. 12:45. Michelin.

- Inburre KKE - Ostadar SKT B**
Larunbata. 11:15. Elorri, Alegin.
- INFANTILEN OHOREZKO MAILA**
Danena KE - Ostadar SKT
Igandea. 19:00. Elbarrena, Zizurkilan.
- INFANTIL TXIKIAK**
Orioko FT - Ostadar SKT
Larunbata. 13:00. Mendibeltz, Orion.
- INFANTILEEN 1. MAILA**
Ostadar SKT A - Aralar Inburre KKE B
Larunbata. 09:45. Michelin.
- Texas Lasartearra - Aralar Inburre KKE A**
Larunbata. 11:15. Michelin.
- Urnieta KE - Ostadar SKT B**
Larunbata. 16:00. Urnietan.
- INFANTILA F-8**
Urnieta KE - Ostadar SKT
Larunbata. 10:00. Urnietan.
- ARETO-FUTBOLA**
GIPUZKOAKO 1.MAILA
Anoeta FT - Aldaz Hertz Klinika
Ostirala. 22:00. Abraham Olano kirol., Anoetan.
- GIPUZKOAKO 2. MAILA**
Egarri taberna - ISU Leihoak
Larunbata. 16:00. Olaederra kirol., Billabonan.

- GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA**
Bar Lasarte - Añona Mendi
Igandea. 11:20. Maialen Chourraut kirol.
- GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA**
Balerdi Harategia - Zarautz KE
Igandea. 12:50. Maialen Chourraut kirol.
- SASKIBALOIA**
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
- SENIOR HIRUGARREN MAILA**
Ostadar SKT - Oiartzungo Saskilagunak
Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut kirol.
- JUNIOR ERRENDIMENDUA**
Ostadar SKT - Urbicolan Hondarribia
Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
- KADETE ERRENDIMENDUA**
Ostadar SKT - Fiskalan ISB
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
- KADETE PARTAIDETZA**
Ostadar SKT - Panelfisa TAKE
Ostirala. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
- INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA**
Ostadar SKT - Bera Bera Santa Clara
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

- INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA**
Zast Orio - Ostadar SKT
Larunbata. 11:00. Karela kirol., Orion.
- IGERIKETA**
INFANTIL, JUNIOR ETA SENIOR
Buruntzaldea IKTo igerilariak Neguko Ligari hasiera emango diote.
Larunbata. 16:00. Allurralde kirol., Andoainan.
- ALEBIN MAILA**
Buruntzaldea IKTo igerilariak alebin ligako lehen jardunaldia lehiatuko dute.
Larunbata. 15:30. Majori kirol., Ordizian.
- PILOTA**
PROFESIONALAK, BIKOTEKA
Jaka-Ladis Galarza / Arteaga II-Eskiroz
Ostirala. 21:00. Antzizar, Beasainen.
- GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA**
Atzapar - Intza
Larunbata. 11:00. Usarrabi, Asteasun.
- GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA**
Intza - Intxurre
Larunbata. 11:30. Loidi Barren pilotalekua.
- LASTERKETA**
LASARTE-ORIA BAI! KROSA
Korrikalariak, patinatzaileak eta gaztetxoak arituko dira lasterka.
Igandea. 10:25etik aurrera. Lasarte-Orian.

- XVIII. KORRIKA FESTA**
Lasarte-Oriako haurrek XVIII. Korrika Festan parte hartuko dute.
Igandea. 12:15etik aurrera. Lasarte-Orian.
- MENDI DUATLOIA**
ZEGAMA AIZKORRI DUATLOIA
Zegama Aizkorri duatloian parte hartuko dute herritar batzuk.
Larunbata. 14:00. Zegaman.
- ERRUGBIA**
OHOREZKO MAILA
UE Santboiana - Hernani CRE
Igandea. 12:00. Baldiri Aleu, Sant Boi de Llobregaten.
- OHOREZKO B MAILA**
Babyauto Zarautz - CU Ourense RC
Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
- EUSKAL LIGA**
La Unica - Beltzak/Zarautz
Larunbata. 18:00. UPNA, Iruñean.
- 18 URTEZ AZPIKOEN LIGA**
Beltzak/Zarautz - Garabi Ordizia
Larunbata. 15:30. Asti, Zarautzen.
- 16 URTEZ AZPIKOEN LIGA**
Beltzak/Zarautz - Labe Lan Ordizia
Larunbata. 17:00. Asti, Zarautzen.

ZORION AGURRAK



Siena
Zorionak, maitia! Zein polita eta dibertigarriak izan diren 8 urte hauek zurekin! Asko maite zaitugu. Ama, aita eta Ekai.



Nora
Zorionak Nora. 17 urte eder. Primeran ospatuko dituzula ez dugu zalantzarik!!! Segi holako jator eta ez aldatu inoiz



Maialen
Zorionak Maialen. Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

JAIOTAKOAK

Jon Mari Cerezo Arrospide. Urriaren 22an.
Axel Gartzandia Martin. Urriaren 20an.
Jon Arroyo Diaz. Urriaren 18an.

HILDAKOAK

Mª Pilar Martija Lazkano. Urriaren 21an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 26	ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 27	LASA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 28	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 29	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Astearte, 30	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 1	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 2	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN
Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen da. Telefonoa: 648 200 811.

ALOKAIRUAN HARTU
Etxebizitza alokatuko nuke. Txikia balitz ere ongi letorkidake, bakarrik bizitzeko baita. Telefonoa: 677406223.

LANA

ESKAINTZA
Lasarte-Oriako ileapain-degi baterako pertsona baten bila gabiltza. 615781116.

ESKARIA

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak, garbiketa lanak, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 602 119 208.

Arratsaldeetan eta asteburuetan haurrak edota helduak zainduko nituzke. 675 83 02 06

Emakumea eskaintzen da etxean edo ospitalean pertsona adinduen zaintza egiteko, baita gauetan ere. 632 198 705.

Goizetan lan egiteko pertsona arduratsua eskaintzen da, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 673 381 470

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. Harremanetarako, 671 908 616.

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa

bezala, orduka, gauetan ospitaleetan, asteburuetan. Telefonoa: 943 40 40 15/ 606 66 10 48.

SALEROSKETA

SALDU
PIAGGIO ZIP 50 2T motoa salgai, oso modu onean. Segurua eta ITVa pasata. Harremanetarako: 610 953 258.

Kotxe berria saltzen da, Mikrorrar marka, karnetik gabeta. Interesatuek deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.


BESTELAKOA

8 urteko ume batek gitarra eta batera bat hartuko lituzke. 943 362 614.

OHARRAK

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.

**Elkartasun afaria**

Lasarte-Oriako Misio taldeak elkartasun afaria antolatu du urriaren 27an, larunbatean 20:30ean, Arantzazuko Amaren elizako lokalean.

Errifak salduko dira afarian zehar eta jasotako dirua Togoko Lome hiriburura ikastera doazen gazteentzako etxe bat egiteko erabiliko da.

Misio taldeak herritarrak gonbidatzen ditu afarian parte hartu eta proiektuan harrizkoa jartzera.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, urriaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak 2018/2019 ikasturteari hasiera eman dio, berrikuntza batekin: entsegu lekua. Ikasturte honetatik aurrera, Villa Mirentxun bilduko dira, astelehen eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:30etara umore onean abesteko.

Alboka Abesbatzak 15-55 urte bitarteko lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu entseguetara gerturatzen eta probatzen. Ez da beharrezkoa musika hizkuntza jakitea. Informazio gehiago junta@albokaabesbatza.com helbidean eskuratu daiteke.

Xumela koruko entseguak

Xumela koruak hasi du ikasturte berria. Euskaraz eta ongi pasatuz kantatu nahi duen guztiak atekazabalik ditu astelehenero, 19:30etatik 20:30etara.

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@binxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



LASARTE-ORIA
UDALA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Musika Topaketa
Maladanza taldearen kontzertua Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika topaketen barruan.
Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Cuerda antzerkia
Tanitaka antzerki taldeak, *Cuerda* lana eskainiko du. Eskola jazarpean oinarritutako lana da. Sarrera, 5,50 euro.
Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

DONOSTIA Kontzertua
Manez eta Kobreak taldearen emanaldia. Euskal musika oinari, senide, bizilagun, lagun eta ezagunen pasadizoak kontatzen ditu. Sarrera, 9 euro.
Lugaritz kultur etxea, 20:00etan.

DONOSTIA Gurs erakusketa
Gurs-eko kontzentrazio eremuaren inguruko erakusketak atek irekiko ditu abenduaren 14ra arte.
Okendo kultur etxea, 10:00etan.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Ate irekiak
Lasarte-Oriako Gaztelekuak ate ireki jardunaldia egingo du:
17:00etatik 18:00etara, gurasoek Gaztelekuko zerbitzuak eta guneak ezagutuko dituzte.
18:00etatik 20:00etara, gazteentzat merienda eta ekintzak.
Gaztelekua, 17:00etatik aurrera.

HERNANI Enaren kontuak
Enaren kontuak haur antzerkiaz gozatu ahaliko dute etxeko txikiek, Herrialde Katalanetako 2 princeses barbudes antzerki taldearen eskutik.
Biteri kultur etxea, 12:00etan.

HERNANI San Pedro abesbatza
Zumaiko San Pedro abesbatzak emanaldia eskainiko du. Kantuz abesbatzak antolatutako ekintza.
Milagrosa aretoa, 19:30ean.

DONOSTIA Manifestazioa
Erraustegia gelditu! lelopean manifestazioa egingo da Donostiako kaleetatik barrena. Hainbat eragile dira manifestazio bateratuen parte hartzerantz dei egin dutenak.
Mendeuren plaza, 17:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Musika topaketa. Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen denboraldi berriari hasiera emango dio Maladanza taldeak. Kontzertu berezia izango da, musika estiloa eta entzun ahaliko diren instrumentuengatik. Garaiko instrumentuak (zanfoina, salterioa, zitarra...) erabilia, Erdi Aroko musika eta sefardi musika eskainiko ditu Maladanza taldeak.
Ama Brigitarren komentua, ostirala, 19:30ean.

DONOSTIA Tailerra
Artista Liburuari Buruzko IV. Topaketen barruan, *Matisse artista liburua sortzen* tailerra, Arto-ko Eluska Kortajarenak eta Ainara Landabereak gidatuta. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua.
San Telmo Museoa, 17:00etan.

DONOSTIA Ulisesen bidaia antzerkia
Gorakada Teatros taldeak, *Ulisesen bidaia* haurrentzako antzerkia eskainiko du. Sarrera, 4 euro.
Lugaritz kultur etxea, 18:00etan.

ASTIGARRAGA Txarriboda
Txarriboda antzerkia eskainiko du Hika Antzerki Taldeak. Sarrerak helduek, 6 euro; adin txikikoek, 3 euro.
Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 28

URNIETA Burbuja ikuskizuna
7Bubbles konpainiak *Burbuja* familia osoari zuzendutako ikuskizuna eskainiko du. Sarrera, 3,30 euro.
Sarobe gunea, 17:30ean.

HERNANI Hozkailua antzerkia
Huts Teatroak *Hozkailua* antzezlanarekin taularatuko du. Nahastekak saileko ekintza da. Sarrera, 7,50 euro.
Milagrosa aretoa, 19:00etan.

DONOSTIA Salt Lake Vocal Artists
50. Tolosako abesbatza lehiaketan parte hartuko duen The Salt Lake Vocal Artists

talde estatubatuarren emanaldiaz gozatu ahaliko da.
Mariaren Bihotza eliza, 20:30ean.

ASTEARTEA 30

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria
Kontu Kantoiko lagunek, 6 eta 8 urte bitarteko gaztetxoek hamaika pertsonaien abenturak kontatuko dizkiete.
Haur liburutegia, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Xabier Mendiaraz Kiropraktiko eta fisioterapeutak *Bizkar hezurtearen bilatu gaixotasunaren kausa* hitzaldia eskainiko du.
Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa, 18:00etan.

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Halloween
Photocall-a, musika, mozorro desfilea eta ezusteko ugari antolatu dituzte Halloween gaua ospatzeko. Aterpea Merkataria elkarteak antolatutako ekintza.
Atsotekaren auzoa, 18:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 1

URNIETA Rol jardunaldiak
Urnietako Rol, Estrategia eta Simulazio XXV. Jardunaldiari hasiera emango zaie.
Lekaio kultur etxea, egun osoa.

ZINEMA

LASARTE-ORIA 18:05, 20:40, 22:45, 00:50. Lgandea: 17:00. ¡Vaya bichos! 16:10, 18:05, 20:40, 22:45. Book Club Lgandea: 19:30.	Larunbata: 16:10, 18:05, 20:40, 22:45, 00:50. Lgandea: 16:10, 18:05, 20:40, 22:45. First Man - El primer hombre Ostirala: 16:10, 21:30, 00:25. Larunbata: 16:10, 21:30, 00:25. Lgandea: 16:10, 21:30. Smallfoot Ostirala: 15:50, 18:00, 20:15. Larunbata: 15:50, 18:00, 20:15. Lgandea: 15:50, 18:00, 20:15. Escuela para fracasados Ostirala: 16:00, 19:00,	22:25, 00:50. Larunbata: 16:00, 19:00, 22:25, 00:50. Lgandea: 16:00, 19:00, 22:25. Slender Man Ostirala: 18:40, 20:45, 22:45, 00:50. Larunbata: 18:40, 20:45, 22:45, 00:50. Lgandea: 18:40, 20:45, 22:45. La casa del reloj en la pared Ostirala: 17:00, 19:15. Larunbata: 17:00, 19:15. Lgandea: 17:00, 19:15. Venom Ostirala: 17:00, 19:30,	22:10, 00:45. Larunbata: 17:00, 19:30, 22:10, 00:45. Lgandea: 17:00, 19:30, 22:10. Ola de crímenes Ostirala: 16:30, 18:25, 20:35, 22:50, 01:00. Larunbata: 16:30, 18:25, 20:35, 22:50, 01:00. Lgandea: 16:30, 18:25, 20:35, 22:50. Ha nacido una estrella Ostirala: 21:30, 00:15. Larunbata: 21:30, 00:15. Lgandea: 21:30.
---	--	--	--



LABURPENA

Book Club
Zuzendari: Bill Holderman. **Gidoilariak:** Bill Holderman eta Erin Simms. **Herr.:** EAB (2018). **Aktoreak:** Diane Keaton, Jane Fonda, Candice Bergen, Mary Steenburgen, Don Johnson, Andy García, Richard Dreyfuss, Alicia Silverstone. **Iraupena:** 104 minutu.

Sexualitatea adineko pertsonetan

Diane, Vivian, Sharon eta Carol. Bill Holdermanek lau emakumeri buruzko filma aurkezten du Book Club filman.

Diane (Diane Keaton) alargundu berri da, 40 urte ezkontuta egon ostean. Vivian (Jane Fonda) inongo loturirik gabe ditu harremanak. Sharon (Candice Bergen) duela hemezortzi urte banandu zen eta geroztik bakarrik bizi da bere katuarekin. 35 urte dira Carol (Mary Steenburgen) ezkontu zela eta krisi txikia bizi du bere bikotearekin.

Lau lagunen bizitza aldatu egingo da irakurketa talde batean E. L. James idazlearen *Fifty Shades of Grey* liburua irakurri eta gero.

Erotismoaren mundua ezagutuko dute.

Horrek eraginda eta lagunene babesa izanik, bizitzaren hurrengo kapituluak hobereza izatea adostu eta egoera sentimentalarik dagokionez, erabaki ausartak hartzerantz animatuko dira.

Diane alargunak hitzordu bat egingo du gizon batekin, Vivianek garai bateko ezagun batekin egiten du topo, Sharonek senar ohia ahaztuko du gizon batekin harreman berria hasiaz eta Carolek bere bikotearekin pasioa berriro nahiko du.

Abentura ezberdinei buruz hitz egingo dute lau lagunek biltzen diren bakoitzean.



Nahiz eta eguraldi txarra egin, iaz herritar ugari hurbildu zen Loidibarreneko pilotalekura, Euskal Jaia ospatzera. TXINTXARRI

Egun osoko egitaraua izango da Euskal Jaian

Lasarte-Oriako Euskal Jaia ate joka dator. Azaroaren 10ean izango da hitzordua herriko erdigunean. Bi berrikuntza nagusi izango dira: gazteei zuzendutako ekintzak eta tabernek antolatutako kontzertuak, jai giroa ordu txikieta arte luzatzeko

Txintxarri

Badira urte batzuk Lasarte-Orian Euskal Jaia berpiztea erabaki zela. Euskal giroa herriko erdigunera ekartzeko, hainbat elkartek elkarlanean egitarau oparoa antolatzen dute. Aurten azaroaren 10ean egingo dute egun berezia, berrikuntzekin: egun osoko egitaraua, eta gazteei zuzendutako ekintzak izango dira.

Ohitura den bezala, txistulariek esnatuko dituzte herritarrek. Ostean, haur eta helduen kantu dantza jirak euskal abesti eta dantzekin alaituko ditu kaleak.

Herri bazkaria eskainiko dute, Okendo plazan. Bazkal ostean, algara mordoa egiteko beta izango dute mahaikideek eta plazara hurbiltzen diren herritarrek.

Herri kirolek ere ez dute hutsik egingo. Arratsaldeko harri-jasotze saioan ez da Okerra Harria protagonista bakarria izango. Diziplina honetan bere lehen pausoak ematen ari da Udane Ostolaza, eta plazan erakutsiko du bere trebetasuna. Harekin batera Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria izango dira lanean.

Etxeko txikiek hainbat kirol probaz gozatzeko aukera izango

dute, baita pilota partidak jokatzekeoa ere. Gazteak ez dira atzean geratuko eta kirol proba saio berezia antolatu dute.

Dantzatzeko gogoekin dauden herritarrek erromeria izango dute asebetetzeko. Ttiriki Ttarraka eskolako kideek Ixak Arruti gitarrajolearen eta Jokin Irastorza baterajolearen laguntzarekin egongo dira oholztan. Txaranga hotsekin eta bertso doinuekin batera mokadua dastatzeko aukera izango da tabernaz taberna.

Hori guztia gutxi ez, eta gaueko ordu txikieta arte luzatuko da Euskal Jaia aurten. Lehenik, Xirimiri elkartean afari eder bat dastatuko dute, eta behin indarberituak, kaleetan barrena musika ere izango da.

Bazkariko tiketak dagoeneko salgai daude Ttakun Kultur Elkarteko egoitzan, eta Jalgi kafe antzokian. Afariokoak, berriz, Ilargi, Trumoi eta Furia Beltza tabernatan. Bakoitzak 10 euro balio ditu. Bestalde, egun osoan zehar euskal giroa izan dadin, herritarrei baserritar jantzia plazara ateratzeko gonbitea egin diete antolatzaileek.



aldaz
horts klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77

www.dentalaldaz.com



**20 URTETAKO
ODONTOLOGIA ZERBITZUAREKIN
GUSTURA DAUDEN 38.000 PAZIENTE**

RPS 233/13



Lasarte-Oria
Ola kalea, 10

Tolosa
San Frantzisko, 39

Elgoibar
San Bartolomé, 22